Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

eman ta zabal zazu

BILBOKO
INGENIARITZA ESKOLA

ESCUELA
DE INGENIERÍA DE BILBAO

# GAUR/ADDI ETA MASTER AMAIERAKO LANARI (MAL) BURUZKO ESKULIBURUA

## Bilboko Ingeniaritza Eskola

# AURKIBIDEA

1. SARRERA ..... 3
2. SISTEMAREN AURRETIKO BETEBEHARRAK ..... 5
3. IKASLEAREN PROFILA ..... 6
3.1. ESLEIPENAK ..... 6
3.2. MATRIKULA ..... 7
3.3. DEFENTSA EGITEKO ESKARIA ..... 7
3.4. MALa ADDIn KARGATZEA ..... 8
3.5. MALaren DEFENTSARAKO DATUAK ..... 16
4. ZUZENDARIAREN PROFILA ..... 17
4.1. ESLEIPENA ..... 18
4.2. DEFENTSA ESKARIA BERRIKUSI ..... 20
4.3. DOKUMENTAZIOAREN BERRIKUSKETA ..... 22
5. EPAIMAHAIAREN PROFILA ..... 27

## 1. SARRERA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) modulu bat atondu du gradu amaierako proiektuak (GRAL) eta master amaierako lanak (MAL) gestionatzeko, unibertsitateko akademia gestio berrituaren (GAUR) barruan integratuta. Modulu honen bidez egingo dira honako administrazio prozesu hauek:

IKASLEARI dagokio:

- Defentsa egiteko eskaria
- Defentsarako data eta ordua kontsultatzea.

ZUZENDARIARI dagokio:

- Esleitutako ikasleen kontsulta.
- Defentsa onartu eta amaierako txostena ematea.

Honez gain, ADDI plataforman:

- IKASLEARI dagokio: MALari buruzko dokumentazioa igorri.
- ZUZENDARIARI dagokio: MALari buruzko dokumentazioa ontzat eman.
- EPAIMAHAIARI dagokio: MALaren dokumentazioa ikusi ahal izango du.

Ikastegiko irakasle guztiek eta masterretan matrikulatutako ikasle guztiek sarrera dute Gradu amaierako lana – Master amaierako lana (GRAL-MAL) gestio modulura GAUR aplikazioaren bidez, erabiltzailea eta pasahitza sartuz.

Honako hau da bistaratzen den pantaila. Sartu ahal izango da egoera **"Irekia"** denean, honako botoi honi sakatuta: 



**Ohar garrantzitsua:** Bai plataforma honetatik nola ADDItik sortu eta igorriko diren jakinarazpen automatikoak UPV/EHUren barruan irakasle eta ikasle bakoitzari esleitutako postara igorriko da, ez beste inora.

## 2. SISTEMAREN AURRETIKO BETEBEHARRAK

Modulu honekin lanean aritzeko, ezinbestekoa da IExplorer-en 7. bertsioa edo Firefox-en 3.0 bertsioa edukitzea. (Ez dugu egiaztatu ea beste nabigatzaile batzuekin behar bezala dabilen).

IExploreren kasuan, zuzen funtziona dadin, honako aukera hau markatu behar da nabigatzailean: **"Gaitu jatorrizko XMLHTTP laguntza".** Ikusteko gaituta dagoen ala ez ondoko urrats hauek egin behar dira: Nabigatzailean, Tresnak (menuan) -> Internet aukerak -> Aurreratua -> "Segurtasuna" atalean.




IExplorer 8-rekin lan eginez gero, hobe da bateragarritasun moduan konfiguratzea: Honetarako, nabigatzaileen tresna barran -> Orria -> Bateragarritasun ikuspegiaren ezaugarriak -> Gehitu.






# 3. IKASLEAREN PROFILA

Ikasleak, bere profiletik, honako pantailla hau ikusiko du. Master bakoitzerako ezarritako gutxieneko kredituak betetzen baditu sartu ahal izango du.(**Begiratu eranskina)**




## 3.1 ESLEIPENAK

***"Esleipenak"*** izeneko menu aukeraren bidez, ikasleek ikusi ahal dute esleitu zaion MALa zein den.



## 3.2 MATRIKULA

Eskolako webgunean argitaratutako deialdi bakoitzean, Graduondoak/MAL, ikasleak web orrian agertzen den formularioa osatzen inskripzioa egingo du eta GAUR-ren bidez matrikula.

## 3.3 DEFENTSA EGITEKO ESKARIA

GRAL/MAL modulutik eta behin matrikula egin ostean, ikasleek lanaren defentsa eskatu beharko dute. Horretarako, ikasleek beren MALa hautatu beharko dute ***"Esleipenak"*** izeneko atalaren bidez eta lana defendatzeko deialdia eta hizkuntza aukeratu. Aukeratutako hizkuntza aldez aurretik adostu beharrekoa da zuzendariarekin eta dokumentazioa osatzeko erabilitako hizkuntza izan beharko da. Pantaila berean aukera eskaintzen da titulua aldatzeko, ***"Titulua aldatzeko"*** arloan klik eginez. Hala eginez gero, eragina izango dute hiru hizkuntzetan.

Prozesu horretan, aplikazioak egiaztatzen du ikasleak MAL irakasgaian matrikula eginda duen.




Deialdia eta hizkuntza hautatu ondoren, defentsa egiteko eskaria erregistratuko zaio zuzendariari berrikusteko zain moduan. Berrikusketaren emaitzaren jakinarazteko, ikasleak posta mezu bat jasoko du eta zuzendariak emaniko txostenaren kopia.

## 3.4 MALa ADDIn KARGATZEA

**3.4.1**. Defentsa GAUR aplikazioan eskatu ondoren, sistemak lanak kargatzen ditu ADDI plataforman. Une honetan, ikasleak mezu elektroniko bat jasoko du **addi@ehu.eus** helbidetik honako eduki hau izanen duena:

*Estimad@ Usuario*
*Usuario Jauna/Andrea*

*Zure Gradu Amaierako Lana sortu da eta bera eskuratu eta burutu ahal duzu.*
*Se ha creado su proyecto fin de carrera y ya está disponible para que pueda cumplimentarlo.*

*Haueк dira datuak:*
*Los datos son:*

*Izenburua/Título: TITULO DEL TFG*
*Bilduma/Colección: NOMBRE CENTRO*
*Zuzendaria/Director: Nombre Director*
*Ikasle/Alumno: Nombre Alumno*

*Zure lana bidaltzeko, mesedez, sartu esteka honetan:*
*Para poder subir su trabajo, por favor, conéctese a:*
*http://academico.ehu.eus/submissions*

*Eskerrik asko!*
*¡Muchas gracias!*

*ADDI Akademikoko taldea/Equipo de ADDI-Académico*

**3.4.2.** Jasotzerakoan, ikasleak mezu elektronikoan aipatutako estekan sartu beharko du eta identifikatuko da edo **http://academico.ehu.eus/** helbidera sartu eta klik egingo ***"Nire kontua - Sartu"***




Hurrengo pantailak aukera emango dio ikasleari LDAP bidez (gomendagarria) identifikatzeko edo bere posta elektronikoari (beti ere erakundekoari) lotutako pasahitza sortzeko.







**3.4.3.** Bigarren aukeraz baliatuz gero, pasahitzaren bidezko egiaztatuz, alegia, ***"Pasahitza ahaztuta?"*** dioen estekara jo beharko dugu




**3.4.4.** Norberaren helbide elektronikoa (**izena001@ikasle.ehu.eus**) idatzi eta informazioa bidaltzeko botoiari sakatu beharko zaio.




Honako mezu hau jasoko da:




Mezu elektroniko bat iritsiko da addi@ehu.eus helbidetik, URL hau agertuta: http://academico.ehu.eus/forgot?token=... Esteka horretara jo behar da norberaren pasahitza sartzeko.




**3.4.5.** Norbera identifikatu ostean, honako pantaila hau agertuko da. Honela ez bada, sartu "***Nire kontua – Nire atazak***" atalera.




**3.4.6.** Tituluan dagoen estekan sakatu eta berrabiatzeko botoiari klik egin:




**3.4.7.** Hurrengo pantailan agertzen dira proiektua deskribatzen duten meta-datuak. Batzuk GAUR aplikaziotik datoz eta beste batzuk ikasleak bete beharrekoak dira. Behin prozesu honekin hasita, ezin alda daiteke interfasearen hizkuntza (datu guztiak ezabatuko lirateke). Proiektua ongi deskribatuta dagoela iritzita, hurrengo pantailara pasako da.




Lana deskribatutakoan, lehenengo pdf-a bidali behar da. Fitxategi bakoitza deskribatu ahal da laburki (Aurkibidea, Memoria eta abar).




Fitxategi gehiago eransteko, fitxategia kargatu eta beste bat gehitzeko botoiari sakatu ondoren, berriro egingo dugu operazio berbera.



**3.4.8.** Fitxategi guztiak ADDIra igo ondoren, hurrengoratzeko botoia sakatu eta datu guztiak egiaztatu behar dira. Zuzenak badira, hurrengoari sakatu behar diogu. Bestela, hauetako bat zuzentzeko klikatuko dugu berriro editatzeko.

**Itemen bidalketa**




**3.4.9.** Bukatzeko, programak lizentzia bat onartzeko eskatuko digu, hartara, horrek baimena emango dio ADDIri dokumentua zabaltzeko, behin dokumentuaren gestio guztiak egin ondoren. Horretarako, lizentzia emateko sakatu behar dugu. GAURen adierazi bada konfidentzialtasun klausula bat dagoela, lana artxibatu egingo da eta ez zaio zabalkunde publikorik emango.



Itemen bidalketa

Banaketa-baimena

**Azken urratsa falta da:**Dspace-k zure bidalketa munduan zehar erreproduzitu, itzuli eta banatzeko baimena izan dezan, zure onarpena behar dugu, terminu hauetan.

Banaketa-baimena estandarra onartzeko 'Onartzen dut baimena aukeratu eta 'Bidalketa bukatu' sakatu.

NON-EXCLUSIVE DISTRIBUTION LICENSE

By signing and submitting this license, you (the author(s) or copyright owner) grants to ADDI the non-exclusive right to reproduce, translate (as defined below), and/or distribute your submission (including the abstract) worldwide in print and electronic format and in any medium, including but not limited to audio or video.

You agree that ADDI may, without changing the content, translate the submission to any medium or format for the purpose of preservation.

You also agree that ADDI may keep more than one copy of this submission for purposes of security, back-up and preservation.

You represent that the submission is your original work, and that you have the right to grant the rights contained in this license. You also represent that your submission does not, to the best of your knowledge, infringe upon anyone's copyright.

If the submission contains material for which you do not hold copyright, you represent that you have obtained the unrestricted permission of the copyright owner to grant ADDI the rights required by this license, and that such third-party owned material is clearly identified and acknowledged within the text or content of the submission.

IF THE SUBMISSION IS BASED UPON WORK THAT HAS BEEN SPONSORED OR SUPPORTED BY AN AGENCY OR ORGANIZATION OTHER THAN ADDI, YOU REPRESENT THAT YOU HAVE FULFILLED ANY RIGHT OF REVIEW OR OTHER OBLIGATIONS REQUIRED BY SUCH CONTRACT OR AGREEMENT.

ADDI will clearly identify your name(s) as the author(s) or owner(s) of the submission, and will not make any alteration, other than as allowed by this license, to your submission.

Baimenari buruzko zalantzarik baduzu, mesedez jarri harremanetan sistemaren administratzailearekin.

**Banaketa-baimena:**

☑ Eman baimena

< Aurrekoa | Gorde/ Irten | Bukatu bidalketa

**3.4.10.** Honetara egin eta gero, ikasleak amaitu du igorpena. MALa zuzendariaren balioespenaren zain geratzen da. Honetarako, mezu elektroniko bat jasoko du jakinaraziz ikasleak igorpena osorik egin duela.



## Bidalketa amaitua

Zure bidalketa bidaltzen ari zaren bildumari esleitutako eginkizun-korrontearen prozesu batetik pasatuko da orain. Zure bidalketa bilduman sartu bezain laster, edo zure bidalketarekin arazoren bat baldin badago, jakinarazpen bat jasoko duzu posta elektroniko bidez. Era berean, zure bidalketaren egoera egiaztatu ahal izango duzu "Nire DSpace" orrira joz

Joan "Nire Dspacera"

**3.4.11.** Zuzendariak dokumentazioa birpasatu eta gero emaitza automatikoki jakinarazten zaio ikasleari.

- MALa behar bezala deskribatu eta artxibatu bada, ikasleak honako mezu hau jasoko du:

*Estimad@,*
*Jauna /Andrea,*

*Se ha archivado su envío en ADDI-Académico en:*
*Zure igorpena artxibatu da ADDI-Akademikoan:*

*Izenburua/Título: TTIULO DEL TFM*
*Bilduma/Colección: NOMBRE CENTRO*
*URL: http://academico.ehu.eus/handle/123456789/608*

*¡Muchas gracias!*
*Eskerrik asko!*

*Equipo de ADDI-Académico/ADDI Akademikoko taldea*

Ikasleak kontsultatu ahal du bere MALa, bertan jasotzen den estekarik klik eginez.

- Osterantzean, bertako bertsioa ez bada defentsarako behar dena, zuzendariak uko egingo dio horretarako arrazoiak aipatuz. Honelakoetan, ikasleak mezu elektroniko bat jasoko du egindako igorpena ukatu zaiola adieraziz eta berriro sartu beharko du errakuntzak zuzentzeko, 3.4.6 eta 3.4.12 puntuetan esandakoari jarraituz.

*Estimad@,*
*Jauna /Andrea,*

*Bidalitakoa/Enviado: TTIULO DEL TFM*
*Helburuko bilduma/Colección: NOMBRE CENTRO*

*Director (correo.director@ehu.eus) zuzendariak*

*ez dizu igorpena onartu arrazoi honengatik:*

*ha rechazado su envío debido a la siguiente razón:*

*UKOAREN ARRAZOIAK / MOTIVOS RECHAZO*

*Zure igorpena ez da ezabatu. Bera eskuratu eta zuzendu ahal duzu ondoko gune honetan:*

*Su envío no se ha borrado. Puede acceder a él y corregirlo desde la siguiente página:*

*http://academico.ehu.eus/mydspace*

*Eskerrik asko! /¡Muchas gracias!*

*Equipo de ADDI-Académico/ADDI Akademikoko taldea*

## 3.5. MALaren DEFENTSARAKO DATUAK

Behin epaimahaiak sortu eta gero eta defentsarako data, ordu eta tokia esleitu ondoren, datuon berri emateko mezu elektroniko bat igortzen zaie ikasleari eta epaimahaikideei. Mezu elektroniko berari atxikiko zaio zuzendariak egindako txostena.

## 4. ZUZENDARIAREN PROFILA

GAUR aplikaziora erabiltzaile eta pasahitza sartuta, honako hau da irakasleek ikusten duten pantaila, "Gradu amaierako lana – Master amaierako lana (GRAL-MAL)" aukeraren barruan:



## 4.1. ESLEIPENA

***PROIEKTU edo LANEN ZUZENDARITZA edo ZUZENDARIKIDETZA:*** Funtzio honen bidez, zuzendariak esleituta dituen ikasleak bistaratuko ditu. Ikasle bakoitzaren bidez, sartuko ahal da proiektuaren xehetasunetara (ezkerreko botoiaren bidez).



Proiektuaren xehetasunak, titulua aldatu eta zuzendarikidea esleitzeko aukera eskaintzen duen pantaila.



Honetarako, ***zuzendarikidea esleitzeko*** botoia klikatu ostean, honako pantaila hau bistaratuko da, lupa erabilita aurkitu nahi den izena aurkitu ahal izateko.




Bilaketa aurreratuak ere egin daitezke. Izena aukeratu eta gero, ***onartu, gorde eta itzultzeko*** botoiak sakatu beharko dira.



## 4.2. DEFENTSA ESKARIA BERRIKUSI

Ikasleak eskaria eskatzerakoan, zuzendariak mezu elektroniko bat jasoko du GAUR aplikaziotik, berrikusi beharreko eskaririk baduela jakinaraziz. Aukera honetatik, zuzendariak ikusiko ditu defentsa eskatu duten ikasleak, **amaierako txostena** plataformara igotzeko*"aztertu"* dioen botoiaren bidez. Eskolaren web-orrian, Graduondokoak atalean, master bakoitzari buruz ematen den argibidean, Master Amaierako lana estekan, eskuru dago txostena egiteko eredu bat.

**Ohar garrantzitsua:** Une honetan garrantzitsua da honako atal hauek egiaztatzea:

- **MALeko titulua zuzena den edo aldatu**
- Adierazi **MALa konfidentziala den.**




Xehetasunetara joanda, honelako pantaila bat ikusiko du:



***Titulua aldatzeko*** ikonoan sakatzerakoan, beste pantaila batera pasatzen da eta bertan egin beharko da aldaketa.







Titulua aldatu eta gero, sistemak berriro emango du tituluaren aldaketa berresteko mezua.




Berrikuspena bukatutzat joko da ***"Amaitu"*** botoia sakatutakoan. Une honetatik aurrera, **titulua behin betikoa izango da** eta ez da aukerarik egongo aldatzeko. Sistemak GAUR aplikazioko taulak elikatu eta eguneratuko ditu, epaimahaiak esleitzen hasteko izapideak egin ahal izateko.

## 4.3. DOKUMENTAZIOAREN BERRIKUSKETA

Ikasleak MALa ADDI aplikazioan kargatzeko ataza amaitu duelarik, zuzendariaren balioespenaren zain geratuko da. Mezu elektroniko bat jasoko du jakinaraziz ikasleak igorpena osorik egin duela.

*Item berri bat igorri zaio barne ADDI akademikoari:*
*Un nuevo item se ha enviado a ADDI-akademikoa:*

*Titulo/Izenburua:* *TTIULO DEL TFM*
*Colección/Bilduma:* *NOMBRE CENTRO*
*Autor/Ikaslea:* *Nombre Alumno*
*Director/Zuzendaria:* *Nombre Director*

*Eginkizun hau eskatzeko klik egin, mesedez, ondoko esteka honetan:*
*Para solicitar esta tarea, por favor, haga click en el siguiente enlace:*

*http://academico.ehu.eus/handle/123456789/36/workflow?workflowID=103*

*Zure ikastegiak emandako epea duzu Gradu Amaierako Lana baliozkotzeko, eta horrela Epaimahaiko kideek defentsa eguna baino aurrerapen nahikoaz jasoko dute.*

*Dispone del plazo establecido por su Centro para validar el Trabajo Fin de Grado/Máster y que de esta forma llegue a los miembros del Tribunal con suficiente antelación a la fecha de defensa.*

*Eskerrik asko!/¡Muchas gracias!*
*Equipo de ADDI-Académico/ADDI Akademikoko taldea*

Mezuan aipatzen den estekara jo beharko du, ikasleek igorritako fitxategiak irakurri eta behera kargatzeko. Aurrera egin baino lehen, sistemak identifikatzeko eskatuko dio LDAP bidez (gomendagarria) edo helbide elektronikoari (beti erakundekoari) loturiko pasahitza sortuz.




LDAP gakoa erabiltzea da gomendagarriena.




Bigarren aukera baliatzen badugu, ***"Pasahitza ahaztuta?"*** dioen botoiari sakatuko diogu.



Norberaren helbidea ([izena.deitura@ehu.eus](mailto:izena.deitura@ehu.eus)) idatzi eta **informazioa bidaltzeko** botoiari sakatu behar zaio.




Honako mezu hau jasoko da:




Mezu elektroniko bat iritsiko da addi@ehu.eus helbidetik, URL hau agertuta: [http://academico.ehu.eus/forgot?token](http://academico.ehu.eus/forgot?token)=0236e7...

URLan klik eginik, plataformarako erabili nahi den pasahitza sartu behar da eta egiaztatu.




Identifikatu eta gero, pantaila hau agertuko da:




Honen helburua da ikasleak MALa behar bezala deskribatu eta artxibatu duela egiaztatzea. Honela denean, **itema onartzeko** botoiari sakatuko zaio. Honek esan nahi du lana prest dagoela defentsarako eta ikasleak mezu elektroniko bat jasoko du.

Osterantzean, bertako bertsioa ez bada defentsarako behar dena, zuzendariak uko egin beharko dio horretarako arrazoiak aipatuz:




Honelakoetan, ikasleak mezu elektroniko bat jasoko du egindako igorpena ukatu zaiola adieraziz eta berriro sartu beharko du errakuntzak zuzentzeko, zuzendariak ontzat emango badu.

## 5. EPAIMAHAIAREN PROFILA

Behin zuzendariak MALaren dokumentazioa ontzat eman eta gero, epaimahaiko kide bakoitzak bana mezu elektroniko jasoko du esleituta dituen lan bakoitzeko:



De: addi@ehu.eus Enviado el: miércoles 2
Para:
CC:
Asunto: ADDI: Tiene acceso a un nuevo trabajo/Lan berria irakurtzeko baimena duzu

Estimad@,
Jaun/Andrea,

Epaimahaiko kidea zarenez, lan hau irakurtzeko baimena daukazu:
Como miembro del tribunal de evaluación, tiene acceso al siguiente trabajo:

Izenburua/Título: Aircraft performance with onboard water condensed from engine core exhaust for contrail prevention Helburuko bilduma/Colección: Máster Universitario en Ingeniería Industrial

Dokumentua jaisteko, helbide honetan sar daiteke:
Para poder acceder al documento, conéctese a la siguiente dirección:

http://academico.ehu.eus/handle/123456789/131

Esteka honetan ere, sar daiteke:
También puede acceder a:

http://academico.ehu.eus/submissions

Eskerrik asko!/¡Muchas gracias!

Equipo de ADDI-Académico/ADDI Akademikoko taldea



Mezuan aipatzen den estekara jo beharko du, ikasleek igorritako fitxategiak irakurri eta behera kargatzeko. Aurrera egin baino lehen, sistemak identifikatzeko eskatuko dio LDAP bidez (gomendagarria) edo helbide elektronikoari (beti erakundekoari) loturiko pasahitza sortuz.




LDAP gakoa erabiltzea da gomendagarriena.




Bigarren aukera baliatzen badugu, *“**Pasahitza ahaztuta**?”* dioen botoiari sakatuko diogu.




Norberaren helbidea (nombre.apellido@ehu.eus) idatzi eta ***informazioa bidaltzeko*** botoiari sakatu behar zaio.




Honako mezu hau jasoko da:



Mezu elektroniko bat iritsiko da addi@ehu.eus helbidetik, URL hau agertuta: http://academico.ehu.eus/forgot?token=0236e7... URLan klik eginik, plataformarako erabili nahi den pasahitza sartu behar da eta egiaztatu.




Erabiltzailea konektatzen denean, pantaila bat ikusiko du eta bertatik zuzendutako lanak ikusi ahalko ditu, baita epaimahaiko kide den lanak ere.

**Trabajos dirigidos:**

| Fecha de aceptación | Título | Remitente |
|---|---|---|
| 2016-11-22 | Aircraft performance with onboard water condensed from engine core exh ... | Alumno |

**Trabajos en los que figura como tribunal:**

| Fecha de aceptación | Título | Remitente |
|---|---|---|
| 2016-11-22 | Aircraft performance with onboard water condensed from engine core exh ... | Alumno |

Esteka klikatuta, dokumentura sartuko da.

Lana ikusi ere ikusi ahal da, http://academico.ehu.eus helbidean sartuta eta ***sartzeko*** botoiari sakatuta identifikatzeko.




Behin ebaluatu nahi dugun lana begi bistan dugularik, fitxategiak jaitsi ahal ditugu orriaren ikonoa edo "***Ikus***" esteka sakatuta.



## ERANSKINA

## GUTXIENEKO KREDITUAK

| UNIBERTSITATE MASTERRA | KREDITUAK |
|---|---|
| Industria Ingeniaritza | 50 |
| Telekomunikazio Ingeniaritza | 50 |
| Itsasketa | 25 |
| Nautika eta Itsas Garraioa | 25 |
| Energia Berriztagarrien Integrazioa Sistema Elektrikoa | 0 |
| Energia Eraginkortasun eta Jasangarritasunaren Ikerketa Industrian, Garraioan, Eraikuntzan eta Hirigintza | 0 |
| Eraikuntzaren Ingeniaritza | 0 |
| Espazioko Zientzia eta Teknologia | 0 |
| Ingeniaritza Energetiko Iraunkorra | 0 |
| Ingeniaritza Mekanikoa | 0 |
| Ingurumen Ingeniaritza eta Kudeaketa | 0 |
| Kontrol Ingeniaritza, Automatizazioa eta Robotika | 0 |
| Material Aurreratua | 0 |
| Proiektuen Zuzendaritza | 35 |
| Sistema Elektroniko Aurreratuak | 0 |